

Erramu edo Pasioneko Igandea

21. Salmoa

L.a. 90 / S.a. 2

(5+4 / 5+4)

Ne-re Jain-ko-a, nun zau-de nun? Ni-taz u-rrri-kal, o-toi en-tzun.

**Nere Jainkoa, nun zaude nun ?
Nitaz urrikal, otoi entzun.**

Ikus orduko, guziek neri trufa, irri,
Ezpain muturrez eta buruaz keinuz ari :
" Jaunari zagon, libra dezala : bego Hari.
Ken dezala ken, maite duenez hor ageri. "

Zakur salbaiak ni nola irets badabilzka,
Gaizki egile osteak dauzkat inguruka.
Esku zangotan egin dautate zilo neri :
Hezurrak ditut guziak oro nik ageri.

Jauntzi zatiak hartu dauzkitet beren sari,
Egina dute soin gainekoaz " ea nori ?".
Nitarik otoi, ez egon, Jauna, beti urrun :
Nere laguntza zatozkit laster nere lagun.

Zure izena aipatuko dut anaieri,
Bil-egunean emanez dener zure berri.
Jainkozaleek, eskerrak eman Jainkoari ;
Izraeldarrak, beldurrez, maitez, has kantari.